

Agenda !!

Abenduak 6 larunbata

Baztango Nekazaritza Kooperatibara bisitaldia. Irteera goizeko 10:30ean, Alkartasuna kooperatibatik. Izen-ematea: 943 361 114. Bazkaria: 20-25 euro.

Abenduak 9/ abenduak 14

Mendi Astea (Ikus 15. orrialdea).

Abenduak 12 ostirala

“Ate joka”, antzerkia, 22:00etan Sutegin. Sarrerak aldezturik kiroldegian salgai, 5 eurotan. Egunean bertan, 8 euro. Antzezleak: Iker Galarza, Sara Cozar eta Joseba Usabiaga.

Abenduak 13 larunbata

Jostailu erabilien merkatua frontoian, 12:00etatik 13:30era. Jostailuak jasotzeko egunak: abenduaren 10etik 12ra, 17:00etatik 19:00etara Sutegiko sarreran.

Abenduak 14 igandea

- **San Tomas azoka.** Goizean, frontoian eta Dema plazan. Sagardo eta babarrun lehiaketak eta Usurbilgo Aizkora Txapelketa.

- **Txotxonfilo ikuskizuna.** “Irudi-mendeko hiria”, Gorakada Teatroa. 17:00etan, Sutegin. 5-8 urte arteko haurrentzat. Sarrerak aldezturik kiroldegian, 2 eurotan. Egunean bertan, Sutegin, 3 euro.

Astelehenean,

Odol Emaileen Eguna

Usurbilgo Odol Emaileen eguna izango da datorren astelehenekoa. Aurten, Antxeta jate-txean egingo da ospakizuna. Lehenik, orde, zendutako odol emaileak gogora ekarriko dituzte eta ondoren Antxeta jatetxean bilduko dira. Azaroaren amaieran bukatu zen bazkarian izena emateko epea.

Abenduaren 14an, San Tomas azoka Usurbilen

A benduaren 21ekoa da San Tomas. Baina Usurbilen, astebete lehenago ospatu ohi da, aurten, abenduaren 14an. Beste behin ere, NOAUA!k babarrun eta sagardo lehiaketa jarri ditu martxan. Beraz, parte hartu nahi duten baserritar eta ekoizleek, NOAUA!tik pasa beharko dute abenduaren 11 baino lehen. Aurten, lehen aldiz, Usurbilgo Aizkora Txapelketa jokatu da.

SAGARDO LEHIAKETA

Sagardoa etxean egiten duena lehiaketara aurkeztu daiteke, herri-tarrek proba dezaten eta, gainera, lehiaketan parte har dezake. Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu eta botila bakoitzeko 1,5 euro ordainduko da. Sagardotegiak ez dira sartuko lehiaketa honetan.

BABARRUN LEHIAKETA

Partehartzaile bakoitzak kg 1 babarrun aurkeztu beharko du. Trukean, 12 euro ordainduko dira. Lehiaketan, ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

Itxura: osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...

Kolorea: zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.

Berdintasuna: tamainaz, kolorez... elkarren berdinak izatea.

Dizdira: berezko dizdira beste edozein produktarekin (olio, abrilanta-



SAN TOMAS ABENDUAREN 14AN
OSPATUKO DUGU USURBILLEN.

dore...) estali edo aldatua izan bada lehiaketatik kanpo utziko da.

Garbitasuna: partikula arrotzik ez izatea.

IZEN-EMATEA,

ABENDUAREN 11 BAINO LEHEN

Sagardo zein babarrun lehiaketetan izen emateko azken eguna abenduaren 11 izango da. Izen ematearekin batera, lehiaketan parte hartuko duten babarrun eta sagardoak ekarri beharko dira NOAUA!ko egoitzara.

Baldintzak eta gainontzeko zalan-tzak argitzeko deitu NOAUA!ra, bulego orduetan (943 360 321).

SARIAK

Babarrun zein sagardo lehiaketa-tan, sari hauek banatuko dira:

Lehen saria: 150 euro + txapela

Bigarren saria: 80 euro

Hirugarren saria: 50 euro

Antolatzaileak: NOAUA! eta Sagardo Egunearen Lagunak.

Usurbilgo Aizkora Txapelketa jokatu da aurtengo San Tomas azokan

San Tomas egunean, lehiaketako sariak banatu ondoren, Usurbilgo Aizkora Txapelketa jokatu da. Bertan duela 20 urte aritutako aizkolari usurbildarrak eta egungo gazteak arituko dira lehian: Inaxio

Pagola “Iruntxo”, Juantxo Esnal “Arrilla I”, Urtzi Olasagasti, Xabi Dorronsoro eta Aritz Esnal “Arrilla II”. Bost aizkolari eta bakoitzak lan hau osatu beharko du: 45 hontzako bi enbor eta kana-erdiko lau.